

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai ekainaren 28an

Yoshitomo Nara

Babeslea

Fundación
BBVA

BBVA Fundazioarentzat oso pozgarria da Guggenheim Bilbao Museoak Yoshitomo Narari eskainitako erakusketa handi hau babestea. Bizigarria da egile japoniarrak sorkuntzaren arloan garatutako lanaren lau hamarkada zeharkatzea; izan ere, erakusketan orain arteko bere lanak daude ikusgai, bere ibilbidearen unerik onenean sortuak.

Narak nazioarteko kritikaren babesa jaso du, baita publiko orokorraren aitortpen zabala ere. Artearen arloan, emozioaren premian sinesten du sortzaileak, eta enpatia eta kidesuna piztu nahi ditu bere marrazkiak, pinturak, eskulturak edo instalazioak ikusten dituztenengan; hala, zuzenean jotzen du haien sentimenera, irudiak behatzean, nolabait, bere egin ditzaten.

Erakusketa honek ongi nabarmentzen duen bezala, herri-kultura, eta bereziki musika, konstante bat da Nararen artean. Bere hastapenetatik, hain gogoko dituen rocka eta punka lagun izan ditu bere sorkuntza-lanean, eta inspirazio-iturri ere izan ditu. Batekotasun itxura izan arren, Yoshitomo Nararen obrak lan zaindu baten emaitza izan ohi dira, eta irakurketa-maila desberdinak pilatzen dituzte. Soinuen munduaren presentzia iraunkorraz eta unibertso pertsonalaren adierazpenaz gain —non kezka sozialak gero eta nabariagoak diren—, artistaren irudietan Ekialdeko eta Mendebaldeko artearen tradizioetatik datozen erreferentzia tematiko eta plastikoak ere batzen dira.

Nararen iruditeria bereziaren protagonista diren pertsonaiek gero leku eta autonomia handiagoa eskatzen diote artistari. Pertsonaia-sorta horrek eta artistaren lanean behin eta berriro agertzen diren gaiak —bizilekua bera etxean sentitzearen kontzeptuarekin lotuta, belar-kimuak, sua edo labana, denak ere ikonografia berezi baten sinbolo— bizitzaren aurrez aurre kokatzen gaituzte, eta gure haurtzaroko oroitzapenetara eramaten gaituzte, baina baita helduaroan sentitzeko eta hausnartzeko dugun gaitasunera ere, gai garenez gero, gure esperientziaren ezagutzatik, gaur egungo errealitateak planteatzen dizkigun kezkak eta erronkak aztertzeko. Ziur nago publiko zabala hurbilduko dela Bilbora eta Yoshitomo Nararen unibertso apartak ezaugarri duen erakargarritasun iradokitzaile hori estimatuko duela.

Carlos Torres Vila

BBVA Fundazioaren Presidentea

Yoshitomo Nara

- Datak: ekainak 28–azaroak 3, 2024
 - Komisarioa: Lucía Agirre
 - Babeslea: BBVA Fundazioa
 - Guggenheim Bilbao Museoak antolatua Museum Frieder Burda-rekin (Baden-Baden) eta Hayward Gallery-rekin (Londres) lankidetzan
- Yoshitomo Nara bere belaunaldiko artistarik ospetsuenetako bat da, eta oso ezagunak dira haren buru eta begi handiko haur-irudi bereziak —itxura mehatxagarria, desafiatzailea eta lotsagabea izaten dute askotan, baina baita malenkoniatsua eta zalantzia ere—.
- Nararen pertsonaiak, haren figurak eta animaliak, bere buruaren isla dira: haurtzaroko oroitzapenak, bizi-esperientziak eta musikaz, arteaz eta gizarteaz —Japoniakoaz zein atzerrikoaz— duen ezagutza ditu sormen-iturri.
- Bere obran behin eta berriz agertzen diren motiboek —teilatu gorriko etxea, kimuak, putzua, kutxa, itsasontzi urdina eta basoa— agerian jartzen dute bere ibilbidean zehar pentsamendu-jarraitutasun bati eutsi diola, eta bere garapen estilistikoa nabarmentzeko ere balio dute.
- Nararen obrari museo garrantzitsu batean eskainitako lehenengo bakarkako erakusketa handia da hau, eta berriaz antolatuta dago Guggenheim Bilbao Museoaren erakustaretoetarako. Ondoren, Baden-Badenera eta Londresera eramango dute, eta horietan ere berriaz moldatuko dute guneetako bakoitzaren berezitasunetara.

Guggenheim Bilbao Museoak *Yoshitomo Nara* aurkezten du, 1997az geroztik Museoaren Babesle Estrategikoa den BBVA Fundazioaren babesaz antolatutako erakusketa. Atzerabegirakoak Yoshitomo Nararen mundu berezia erakusten eta aztertzen du. Gainera, bidaia batean barrena eramaten gaitu, artistaren sormenak, bere ideien sorburutik hasita, izan duen eboluzioan barrena. Erakusketa gaika antolatuta dago, ez hainbeste kronologikoki edo teknika eta materialen arabera, eta Nararen prozesu kontzeptualen eta formalen gaineko ikuspegia eskaintzen du. Azken lau hamarkadetan —1984tik 2024ra— egindako pintura, marrazki, eskultura eta instalazioen hautaketa zabalak enpatiaz erantzuten die artistak urteetan zehar aurkitu dituen pertsoneri eta lekuei.

Nararen obrari museo garrantzitsu batean eskainitako lehen bakarkako erakusketa handia da, baita espainiar estatuan egingo zaion lehendabizikoa ere. Erakustaldia berriaz antolatuta dago Guggenheim Bilbao Museoaren erakustaretoetarako, eta handik Baden-Badenera eta Londresera eramango dute gero; horietan ere berriaz moldatuko dute guneetako bakoitzaren berezitasunetara.

Yoshitomo Nara (1959, Hirosaki, Aomori prefektura, Japonia) bere belaunaldiko artistarik ospetsuenetako bat da. Oso ezagunak dira egiten dituen haurren irudi bereziak, beren buru eta begi handi eta guzti mehatxagarri, desafiatzaile eta lotsagabe ageri ohi direnak, baina baita malenkoniatsu eta zalantza ere.

Nararen pertsonaiak, haren irudiak eta animaliak, bere buruaren isla dira, bere pentsamendu eta emoziorik sakonenen irudikapena eta adierazpidea. Haurtzaroko oroitzapenak, bizi-esperientziak eta musikaz, arteaz eta gizarteaz —Japoniakoaz zein atzerrikoaz— duen ezagutza ditu sormen-iturri. Narari izugarri interesatzen zaio gizadia; hala, etxea, komunitatea, natura eta haien arteko interrelazioa bezalako kontzeptuak aztertzen eta txertatzen ditu bere lanetan.

Erakusketa gaika antolatuta dago, Nararen zehaztapenei jarraituz. Bere lanetan behin eta berriro agertzen diren motiboek —besteak beste, teilatu gorriko etxea, kimuak, putzua, kutxa, itsasontzi urdina eta basoa— agerian jartzen dute bere ibilbidean zehar pentsamendu-jarraitutasun bati eutsi diola, eta bere garapen estilistikoa nabarmentzeko ere balio dute. Narak margolarizat du bere burua, baina gaietako bakoitza hainbat material eta formaturen bidez jorratzen du: marrazkia, eskultura eta instalazioa.

Nararen haurtzaroko oroitzapenak —isolamendu-sentipen kutsu handikoak—, atzerrira egindako bidaiak, Alemaniako egonaldia, eta artearen historiaz duen ezagutza sakona funtsezkoak dira haren lana ulertzeko. Bere jarduna biziki lotuta dago, baita ere, txikitan entzuten zuen musikarekin: Bob Dylan bezalako kantautore estatubatuarren folk abestiak, Vietnamgo gudaren garaian gerraren aurkako mezu inkonformistak eta eskubide zibilen mugimenduaren aldeko aldarria zabaltzen zutenak; blues doinu introspektibo eta malenkoniatsuak; eta Ingalaterratik eta Irlandatik iritsitako musika herrikoia. Atzerriko hizkuntzetan abestutako kanta haien letrak ulertu gabe, Narak zentzumenen bidez xurgatu zituen doinuak. Eta, diskoen azaleko irudietan sumatzen zuenarekin batera, bere modura ulertzen zuen Narak musika hura, emozio pertsonalez blaituta. Hori guztia punkaren edo new wavearen garaia baino askoz lehenago izan zen, nahiz eta gerora genero horiek ere hartu zituen artistak inspirazio-iturritzat. Musikaren bidez, Narak konektatu egin zuen gizadiarekiko eta komunitatearekiko begirunearekin eta askatasun-senarekin.

1980ko otsailean, hogeituro urteko ikaslea zela, Nara lehen aldiz etorri zen Europara. Bidaian, Goi Erdi Aroko eta Errenazimentuko margolanak ikusi ahal izan zituen aurrez aurre —gai biblikoak eta narratiba erlijiosoak irudikatzen zituztenak—, baita Europako maisu modernoek lanak ere. Obra haien aurrean, erakarpen emozional izugarria sentitu zuen Narak; are gehiago, halako iratzartze espiritual bat nabaritu zuten bere baitan. Asko ikasi zuen impresionismotik, espresionismotik eta Parisko Eskolarekin lotutako artisten lanetik. Sortzaile haien filosofiak, espiritualtasunak eta teknikek bultzatuta, bestelako argitan berrikusi zuen ordura arte ikasitako guztia. Nararen beraren hitzetan: “Japonia utzi ondoren, konturatu nintzen gauzak guztiz desberdin ikusten direla Fuji menditik eta Everest menditik”.

1983an bigarren aldiz etorri zen Europara, eta bidaia hark ere eragin handia izan zuen artistarengan. Urte batzuk geroago, 1987an, Aichi prefekturako Arte Unibertsitatean graduatu ondoren, Alemaniara joatea erabaki zuen Kunstakademie Düsseldorf ikastera. Garai hura garrantzi handikoa izan zen Nararen garapen pertsonal eta artistikorako. Alemanieraz hitz egiteko gai ez zela ikusita, kontzienteki itzuli zen bere

hautzaroko bakardadera, eta horrek bere artearen bidez komunikatzeko zuen beharraz jabetzea ekarri zion.

Kunstakademien, Narak Alemaniako neoespresionismoaren defendatzaile nagusietako batekin ikasi zuen, A. R. Penck artistarekin, hain zuzen. Pencken eragina bistakoa zen jada Nararen hurbilketa formalean – pintzelkada soltez eta kolore bizi eta distiratsuak erabiliz zakarki margotutako figurak—, baita bere iruditerian ere, *Egin bidea, jarraitu bidea* (*Make the Road, Follow the Road*, 1990) lanean ikusten den bezala. Margolan horretan, mundutartasuna eta espiritualtasuna uztartu eta mitologia erabat pertsonala eratu zuen. Nararen aldi hartako margolanen eta marrazkien artean disonantzia bat zegoela ikusi zuen Penckek, eta bi praktikak bateratzeko aholkatu zion. Horrek Nararen konposizio narratiboak fintzea ekarri zuen, eta artista lan estilizatuagoak, bikainagoak eta emozionalki zuzenagoak sortzen hasi zen horrela. Obra horiek aitortza lortu zuten Europako artearen munduan beren indibidualtasunari eta berezitasunari esker. Begirada desafiatazileko begi handiz irudikatutako haurrak Nararen bereizgarri bihurtu ziren.

Kunstakademie Düsseldorf pinturako espezialitatean masterra lortu ondoren, Nara Koloniar joan zen, eta han bizi izan zen 1994tik 2000ra. Koloniako egonaldi hartan, bakarkako hainbat erakusketa egin zituen, eta taldeko erakusketetan ere parte hartu zuen Europa osoan. Bere lanen salmentari esker bizimodua ateratzea lortu zuen, eta horrek aukera eman zion bete-betean ekoizpen artistikoan aritzeko. Gai berriak jorratzen hasi zen, eta horren erakusle dira, besteak beste, *Hazizurriak* (*Mumps*) eta *Txakurtxo abandonatua* (*Abandoned Puppy*) lanak; lehenak haur bat irudikatzen du, aurpegia buru gainean korapiloz lotutako bendaz bilduta duela; bigarrenak, aldiz, txakurtzoz mozturrotutako ume bat erakusten du. Batzuetan, bi haurrak kutxa baten barruan agertzen dira; kutxa aterpearen eta babesaren sinbolo da Nararentzat.

1995ean, Narak bere lehen erakusketa indibiduala egin zuen Estatu Batuetan, eta ohi baino publiko zabalagoaren arreta erakarri zuen. Kritikariak bere obraren garrantasun aztoragarria nabarmendu zuten. Hiru urte geroago, Kaliforniako Unibertsitateak pinturako irakasle gonbidatu izatea proposatu zion. Hiru hilabetez, Takashi Murakami artista japoniarrarekin batera aritu zen bertako pintura-sailean eta, harreman haren ondorioz, Murakamik 2000. urtean antolatutako hainbat erakusketatan parte hartu zuen. Nararen artelanak Ipar Amerikako bildumetan sartzen hasi ziren: *Gaean esna (eserita)* [*Sleepless Night (Sitting)*, 1997], esaterako, Rubell familia-bildumak eskuratu zuen.

Hamabi urtez Alemanian bizi ondoren, 2000an Japoniara itzultzea erabaki zuen Narak. Hurrengo urtean bakarkako erakusketa handi bat eskaini zioten Yokohamako Arte Museoan: *I DON'T MIND, IF YOU FORGET ME*. Erakusketa herrialdeko beste bost lekutara eraman zuten, besteak beste bere jaioterriko, hau da, Hirosakiko Yoshii Brick Brew Housera. Hala, Japoniako artista gailen eta ezagunenetakoa bihurtu zen Nara. Ikusgai jarritako lanen artean zegoen *Hiltzeko gazteegi* (*Too Young to Die*, 2001), plater itxurako margolan biribil bat, Nararen pertsonaia arketipikoetako bat zigarroa erretzen irudikatzen duena tondo errenazentista bat gogorarazten duen konposizio baten baitan.

2011ko martxoaren 11n Japoniak hainbat hondamendi jasan zituen aldi berean: herrialdearen ekialdea astindu zuen lurrikara handi bat, haren ondoriozko tsunamia eta Fukushima Daiichi zentral elektrikoko

istripu nuklearra. Naturaren ahalmenak eragindako suntsipenaren handitasunak bizitza aldatu zion Narari. Kaltetuek jasandako galera izugarria eta haien oinazea ikusita, artista gisa zeukan egitekoa berraztertze beharra sentitu zuen, eta Tohoku eskualdera bideratu zuen arreta, bertan hazia baitzen. Konturatu zen, Tokio bezalako hiri handien izugarritzko eskakizunen aldean, landa-eremuak galtzen ateratzen zirela bai ekonomikoki bai kulturalki, eta komunitatean oinarritutako tokian tokiko proiektu artistikoei ekitea erabaki zuen.

Nararen lengoaia piktorikoa munduaren ikuspegi berri bat islatzen hasi zen harrezkero. *Aire-erasoentzako babeslekutik* (*From the Bomb Shelter*, 2017) lanak, esaterako, haur bat erakusten du lurpeko bunker batetik irteten saiatzen. Kolore bakarreko irudi horrek Nararen motibo iraunkorrenetako biren jarraitutasuna eta garapena erakusten ditu: kuxtarena eta —putzu baten bidez, eremu kolektiboari lotutako atari batean sartzen den— figura murgilduarena. *Aire-erasoentzako babeslekutik* Hideo Sekigawa zuzendariaren *Hiroshima* (1953) filmean inspiratuta dago, eta filma bera, berriz, *Children of the A-Bomb* (1951) best-sellerrean oinarrituta dago. Liburuak Hiroshimako bonbardaketatik bizirik irtendako eskola-umeen zuzeneko kontakizunak biltzen ditu.

Antzeko ziurgabetasun-sentsazioa eragiten dute *Blankey* (2012) eta berriki egindako *Gauerdiko malkoak* (*Midnight Tears*, 2023) lanek ere. Horietan, haurrek itxura etereoak dute; kolore desberdinetako pintura-ukitu zatikatuekin margotuta daude, aurreko lanetako kolore-eremu solidoetatik urrun. Beren aho horizontal itxiek ezer gutxi ematen dute aditzera —aurreko lanetan muzin-keinuz edo ertzak zertxobait igota ia irribarrez agertzen ziren ezpain haien arrastorik ere ez orain—; malkoz betetako begiek, ordea, emozio sakona erakusten dute.

Erakusketa honek Narak Europara egin zuen bigarren bidaiatik gaur arte igarotako berrogei urteak biltzen ditu. Agerian jartzen du Hirosakitik alde egin izana eta Japoniatik kanpo emandako denbora funtsezkoak eta beharrezkoak izan zirela Nararentzat, eta tresnak eskaini zizkiotela artista gisa duen egitekoa birpentsatzeko eta Japoniako komunitateekin, jendearekin eta naturarekin duen harremana berriro aztertze: “Azkenean sentitu nuen dagoeneko baneukala ordura arte falta izan zitzaidan hura, nolabait esatearren, behar nezakeen edozer esku-eskura neukala, eta hiriburutik urrun bizitzeko gai nintzela. Hala ere, uste dut horren beharra nuela, hau da, denbora batez jaioterritik aldentzeko beharra, hori dena ulertu ahal izateko”.

KATALOGOA

Erakusketa honekin batera katalogo ilustratu jori bat argitaratuko da, erakusketaren komisario Lucía Agirreren, Mika Yoshitakeren eta Shigemi Takahashiren saiakerak biltzen dituena. Testuek Yoshitomo Nararen obra hartzen dute aztergai, eta agerian uzten dituzte haren margolan, marrazki, eskultura eta instalazioen arteko harremanak, harmoniak eta disonantziak.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, Guggenheim Bilbao Museoa gune didaktikoak, *online* edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu erakusketa bakoitzaren osagarri, ikusgai dauden artelanak balioesten laguntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzeko helburuz. Erakusketa honetako Didaktika, EDP Fundazioak babestua, *online* egongo da eskuragarri, eta artistaren biografia jasoko da bertan, haren bizitza eta ibilbidea inspiratu dituen musikan arreta berezia jarrita.

Programak

Inaugurazio-hitzaldia (ekainak 26)

Yoshitomo Nara berak aurkeztuko du erakusketa jendaurrean atzerabegirakoa inauguratu aurretik egingo den ekitaldi batean. Artistari berari erakustaldiaren berri entzuteko aukera paregabea.

Hausnarketa partekatua *

Museoko profesionalak gidatutako ibilbideok Nararen erakusketari buruzko ikuspegi berriak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduradunen ikuspegia (uztailak 3): Lucía Agirre, Museoko arte-arduraduna eta erakusketaren komisarioa

- Funtsezko kontzeptuak (uztailak 10): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntzako koordinatzailea

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Belaunaldi arteko arratsalde-pasa (abuztuak 6)

Uda honetan Museoko terrazan 50-60ko hamarkadetako musika estatubatuarra abiapuntutzat hartuta, musikaz hitz egin eta ondoren, Yoshitomo Nararen erakusketa bisitatzeko aukera izango da.

Sormen-saioa Binilo-musika (urriak 10)

Yoshitomo Nara Binilo diskoen zale amorratua dela medio, saio honetan, bere haurtzaroan eta gaztaroan entzuten zituen punk edo new wave doinuen aurreko musikaz gozatzeko antolatutako tailerra: Vietnamgo gerraren testuinguruan sortutako aireak, bai 50 eta 60ko hamarkadetako bakearen eta eskubide zibilen aldeko mugimenduetan abesten zit leloak. Bilboko Power Records sonatuaren eskutik, eskainitako tailerra.

Z Ostiralak (urriak 25)

Nararen artea inspirazio-iturri hartuta, Juan Pablo Orduñez (Mawatres) artistak aktibismoari eta adierazpen sozialei buruzko tailerra proposatuko du. Batez ere 20 eta 30 urte bitarteko gazte zuzendutako saio honek, parte-hartzaile guztien artean horma-irudi bat sortzeko aukera emango du.

Azaleko irudia:

Yoshitomo Nara

Putzurik sakonenean II (In the Deepest Puddle II), 1995

Akrilikoa kotoi gainean, mihise gainean muntatuta

120 x 110 cm

Ryutanro Takahashi Collection

© Yoshitomo Nara, 1995, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Yoshitomo Nara
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta deskargatu behar duzuen materiala.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Yoshitomo Nara* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2024ko ekainaren 28tik azaroaren 3ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzizioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri digital egokien bitartez, eta artistaren copyrighta, © **Yoshitomo Nara**, adierazi behar da ur-marka gisa.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Fitxategiak online argitalpenean txertatuta egon behar du, deskargatzeko aukerarik gabe.
- Irudiak ezin zaizkio transferitu hirugarren bati ezta datu-base bati.
- Irudiak azaletarako erabili ahal izateko ezinbestekoa da alde zuzenetik artistaren baimena eskuratzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Sailarekin +34 944 359 008 telefonoan edo media@guggenheim-bilbao.eus helbide elektronikoan.

Yoshitomo Nara

Egin bidea, jarraitu bidea (Make the Road, Follow the Road), 1990

Akrilikoa mihise gainean

100 × 100 cm

Aomori Museum of Art

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Itsasontziak neskatoan (Ships in Girl), 1992

Akrilikoa eta koloretako arakatzak paper gainean

28 x 34 cm

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, 1992, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Putzurik sakonenean II (In the Deepest Puddle II), 1995

Akrilikoa kotoi gainean, mihise gainean muntatuta

120 × 110 cm

Ruytaro Takahashi Collection

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Gauean esna (eserita) [Sleepless Night (Sitting)], 1997

Akrilikoa mihise gainean

120 × 110 cm

Eskaintza: Rubell Museum, Miami and Washington, D.C.

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Borrokan desagertua (Missing in Action), 1999

Akrilikoa mihise gainean

180 × 145 cm

Eskaintza: Sally and Ralph Tawil

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Bizitza-iturria (Fountain of Life), 2001/2014/2022

Laka eta uretanoa zuntzez indartutako plastiko gainean (FPR), motorra eta ura

175 × 180 cm diametroa

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Hiltzeko gazteegi (Too Young to Die), 2001

Akrilikoa kotoi gainean, zuntzez indartutako plastiko gainean muntatuta

180 cm diametroa

Eskaintza: Rubell Museum, Miami and Washington, D.C.

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Joey, 2008

Arkatza paper gainean

51,5 × 36,5 cm

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Nire marrazki-gela 2008, logela eta guzti (My Drawing Room, 2008, Bedroom Included), 2008

Instalazioa (baliabide anitzak)

Approx. 301,5 × 375 × 380 cm

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Baso andereñoa (Miss Forest), 2010

Platino, urre eta zilar likidoz apaindutako zerakika

144 × 102 × 100 cm

Leeum Museum of Art, Korea

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Blankey, 2012

Akrilikoa mihise gainean

194,8 × 162 cm

Bilduma pribatua

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Pentsalari txikia lorategian (Little Thinker in the Garden), 2016

Zeramika

52 × 38 × 35 cm

Bilduma pribatua, Paris

© Yoshitomo Nara, 2016, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Aire-erasoentzako babeslekutik (From the Bomb Shelter), 2017

Akrilikoa jute gainean, zur gainean muntatuta

180,5 × 160,5 cm

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara

Gauerdiko malkoak (Midnight Tears), 2023

Akrilikoa mihise gainean

240,5 × 220 cm

Artistaren bilduma

© Yoshitomo Nara, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation



Yoshitomo Nara *TOBIU* lanaren aurrean eserita, 2019

Artistaren dohaintza: TWO x TWO for AIDS and Art auction, 2021

Adabakidun uhin-kartoia, zur gainean muntatuta

294,5 × 354 cm

Eskaintza: Blum

© Yoshitomo Nara, 2019, eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation

Argazkia: Ryoichi Kawajiri

